



Amagoia Mujika Tolaretxipi, BERRIAko zuzendaria

Andoaindarra sortez, Urnietan bizi da, egun. Martxelo Otamendi ordezkatu du, BERRIA egunkarian / 8-9

Herriartekoa, Arraten

Finalurrekoa jokatu du Andoain taldeak, Azpeitiaren aurka, ostiral honetan Arraten / 12

Jaiaz eta kaleaz gozatzeko aukera aparta izan da Urnietako Gazte Festetan / 2-5

Andoaingo Rock Jaialdiaren edizio berria, larunbat honetan, Nafarroa plazan / 15-16

Urrats
inprimategia

LEBITON KAMISETAK SALGAI, ENKARGUZ

12€

- **TAILAK:** 1-2, 3-4, 5-6, 7-8.
- **KOLOREAK:** Beltza, gorria, urdin argia eta urdin iluna.
- **MUESTRAK:** Urratsen.
- **ESKAERAK:**
 - urrats@urratsinprimategia.com
 - 688 61 85 48.
 - Bertan (Zumea kalea, 19-Andoain) 09:00 - 15:00 (asteleheneretik ostiralera)

SANJUANETARAKO NAHI IZANEZ GERO EKAINAREN 15ERA ARTE.



Etxeberri elkarteko kideek bota zuten txupinazoa. AIURRI

Urnietar guztiek gozatzeko moduko Gazte Festak

Gazte Festak izan ziren joan den asteburuan Urnietan, hauteskondeak medio astebete atzeratu ondoren. Udari ongi-etorria emateko aukera polita izaten dute herritarrek, jai-giroaren bueltan

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Etorri bezain azkar, martxa egin dute, ziztu bizian, Gazte Festek. Ospakizunerako gogoia nagusi izan da herrian, eta, adin eta gustu guztiei begirako egitarauarekin, inor gutxi gelditu da etxean, jai-giroan murgildu gabe. Ostiralean bertan, txupinazoa bota aurretik, jada, kalean zegoen jendea, festarako grinaren erakusle, Kantazaunekin kalejiran, Poxta Zaharrekin bertso-poteoan

nahiz pintxo-lehiaketan edota giza-futbolinean jolasten, Gaztelekuarekin. Etxeberri elkarteko kideak izan dira aurten omenduak eta buruhandien eta erraldioen kalejiraren ondoren, suziriak bota zituzten udaletxeko balkoitik: "Arratsalde on urnietarrak eta ez urnietarrak! Gure elkar-tearrentzat, gaur, hemen, txupinazoan egotea, urte hauetan, herriari poza eta bizia emateko egiten ari garen lanaren eta aha-

leginaren aitortza da. Jai Batzordea osatzen duten elkarte guztien eta Urnietako Udalaren ahaleginari eta dedikazioari esker, programa bat sortzea lortu dugu, Gazte Festak gustuko izango dituzuelakoan. Jai haue-tan guztiok lekua izatea nahi dugu, erasorik gabe eta berdintasunean. Azkenik, urnietar guztiei eta jaiez gozatzera etortzen zareten guztioi eskerrak ematen dizkizuegu, gure lanari zentzua



Egape Dantza Taldeak, jaien hasierako ikuskizunean. AIURRI



Poxta Zaharren pala-txapelketako finala. AIURRI



Giza-futbolina, Gaztelekuaren eskutik. AIURRI

ematen diozuelako. Gora Urnietako Gazte Festak!". Gogotik egin zuen bero larunbatean nahiz igandean, goizean goizetik hasita. Nolanahi ere, ez zen batere oztopo izan hori urnietarrentzat, eguzkia irten orduko, kalera atera eta giroaz eta jendeaz gozatzeko makina bat aitzakia baitzituzten herritarrek, elkar-teek antolatutako egitarauari esker. Gaueko txandari begira ere, ondo baino hobeto eman

zitzaien lekukoa bi egunetan gautxori parrandazaleei: iluntzetik aurrera, zer ospatua izan zen Urnietako hainbat plazatan. Etorri bezain azkar, martxa egin dute, ziztu bizian, Gazte Festek. Ajea ez da izaten, ordea, San Miel jaien bestekoa, uda ate-jokaden honetan, herriz herri, auzoz auzo, jaietan ibiltzeko aukera izango baitute urnietarrek, Gazte Festetan beti-beti gozaten duten bezain ondo pasatzen.



Kantazauneko kideak, Etxeberri plazan. AIURRI



Erraldoia izan ohi da erraldoien eta buruhandien kalejira. AIURRI



Herriko kaleak girotu zituen bertso-eskolak. AIURRI



Matxo tabernak irabazi zuen pintxo-lehiaketa. AIURRI



Egape Dantza Taldeko harrobia. AIURRI

Urnieta Dantzan jaialdia

Euskal dantzak garrantzi handia du Urnietan, nagusiki, Egape Dantza Taldeak urte luzez egin duen lanari esker. Aurreko asteburuan, Egapeko partaide guztiak kalera irten ziren, herria euskal folklorez zipriztintzeko





Potxa Zaharreko parrilleroak eta txotxeroak. AIURRI

Giro ederra asteburu osoan

Aukera izan duenak, asteburu ederraz gozatzeko parada izan du Urnietan. Goizean hasi, eta, gaueko ordu txikiak bitarte, ekitaldiak bata bestearen atzetik kateatu dira, Gazte Festetan. Ekitaldi askoren argazki-bildumak eta bideoak Aiurri.eus gunean ikus daitezke



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Debatea



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023

“Joni, aurten debatea faltan bota dut”. Atea zeharkatu aurretik tinbrea jotzen duenak bezalaxe, abegikor hurbildu zitzaidan laguna. Atea danbaka jotzen duen moduko jarrerarekin hurbildu zitzaidan beste bat: “Oye, ¿me parece muy mal que no haya debate?”. Eta behatza tinbretik kendu

ezinik eta beste eskuarekin atea danbaka joz aritzen den haserretuaren plantan hurbildu zaidan konspiranoikorik ez da falta izan: “Yo ya sé por qué no has organizado el debate...”. Ez ziren hor bukatzen purrustaldiak. Bigarren kolpea prest zuen, batek baino gehiagok: “Emaizta zozoa izan

da”; “Ha ido muchísima menos gente, esta vez”.

2015eko eta 2019ko udal hauteskundeetan debate bana antolatu genuen Aiurritik. Formula errepikatzearekin nekatuta, beste proposamen baten alde egin genuen. Lantaldean hautagai bakoitzean elkarrizketatzea adostu genuen. Debaterik ez da izan, eta horrek hainbat erreakzioa eragin du. Kakotxa artean aipaturikoak neroni kalean jasotako iritzi sorta da.

Aipamen horiek entzuterakoan bi erreakzio izan ditut, eta bigarrena aipatuz hasi nahi dut. Zeinen ona den Aiurrira horrelako exigentziekin hurbiltzea! Aiurrik gizarte bizitzan duen garrantziaren seinale da. Erdal munduarentzat ere erreferentzia gara, eta hori euskarazko informazioaren

lanketan urte luzez dihardugunontzat 1994ko hasiera haietan amesten ez genuen lorpena da. Euskarazko tokiko hedabideok lortu dugu erreferentzialtasun hori. Ez da berria. Gure lana etengabekoa da, herriari estuki lotuta, askotariko informazioa landuz eta sareetan, gainera, irudiz eta bideoz emaitza bikaina eskainiz.

Nire lehen erreakzioa zein izan zen imaginatuko duzue. Ez nituen gogo onez hartu, jasotako komentario horiek. Debatea antolatzea nekagarria da. Ez dakizue zenbateraino! Ordulariari begira pasa nituen bi debate oso. Kazetari lanetan baino gehiago, epaile aritu izanaren sentsazioa izan nuen bietan. Debateak amaituta ere epelak entzun behar izan genituen alderdi

bakoitzaren kideen aldetik. 2015ean herritarren galde-erreguen norabidearekin haserretu ziren batzuk, 2019an azken erreplikaren eurenak ez ziren hautagaiek botatako argudioekin sumindu ziren ia alderdi guztietako kideak... Fahrenheit graduak, lau urtetik urtera, gorantz doazela ikusita, debatearekin jarraitzeko gogo gutxi. Eta, bai, La Sexta TVra jolas genezake. Neu, ordea, espektakularizazioaren kontra agertzen naiz. Aurten, elkarrizketen bidez, pertsona eta hautagaia hobeto ezagutu ditugu. Pepu Hernandez entrenatzaileak behinola saskibaloiaz adierazi zuena gurera ekarriz, aurtengo xedea argia izan da: Gurea KA ZE TA RI TZA da.

Aurten, formatu honetan, kazetari sentitu naiz.



AIURRI

Ur parkea zabalik da

Miranda pasealekuko ur parkea aste honetan zabaldute, eta uda beroko egunetarako aisialdirako gunea izango da. Aduna izan zen inguruotan ur parkea zabaltzen lehena, eta hasieratik bisitari asko jaso zituen. Haur txikiak dituzten familiak, batik bat. Andoaingo ur parkearen erabilera herriko haur askoren aukera bilakatuko da, uda honetan.

Bonuen arrakasta

Salkin elkarteak eta Udalak bonu berriak jarri dituzte salmentan, ekaineko kontsumoa indartze aldera. Tiketak azkar batean agortu ziren, eta, egun hauetan, bonoak saltzeari ekin diote. Hilabetean herriko merkataritzan eta ostalaritzan 50 euroko gastua egin ahal izango da, 25 euroko prezioa ordainduta.



AIURRI

POSTONTZIA

CCOO, LAB, UGT, ESK
CORREOS-EKO SINDIKATUAK

Kontratazioen beharra premiazkoa da

Andoaingo Correoseko langileok enpresaren kontratazio-ezaren politika muturrera iristen ari dela salatzen nahi dugu. Herrian dauden 8 ataletarako 3 postari besterik ez gaude.

Posta Zerbitzu Unibertsala ez da betetzen ari, gutunak pilatzen ari dira lehentasuna paketeak ateratzea baita, eta denbora izanez gero, jakinarazpenak. Gutunek egunak daramatzate banatu gabe. Andoainean hedadura kontuan hartuta, gainkarga eta estres onartezina eragiten ari da lanean diharduten hiru langileengan.

Lanpostu hutsak duela hilabete batzuk programatutako oporrei dagozkienak dira. Beraz, enpresak behar besteko denbora-tartea izan du hain beharrezkoak diren kontratazioak egin ahal izateko.

Langile gehiago lehenbailehen kontratatzea eskatzen dugu.



BERTXIN

Bertxingo jubilatuetak

Bertxineria joan-etorria egin zuen taldetxo batek, eta Leitza-Andoain zeharkaldia egin zuen beste talde batek. Ondoren, guztiak batera, Olagain auzoko elkartearen eta tabernan bildu ziren. Bazkariarekin eta dantzaldiarekin, egun pasa ederra igaro zuten. Gehien-gehienak Olagain aldeko auzotarrak ziren.



BERTXIN

1970ean jaiotako bazkaria

50 urte bete zuen belaunaldiak pandemia garaia bizi izan zuen. 2020a ez zen ospakizun handietarako urtea izan. Hiru urte beranduago, Andoainen 1970ean jaiotakoek lagunarteko ospakizuna egin zuten Oianume jatetxean. Argazkian ikus daitekeenez, lagun askok bat egin zuen deialdiarekin. Hiru urte beranduago bada ere, efemeridea ospatu ahal izan zuten.



AIURRI



Uztailetik aurrera, Amagoia Mujika Tolaretxipi izango da BERRIAko zuzendaria. AIURRI

“Garrantzizkoa da guretzat independente izaten jarraitzea”

AMAGOIA MUJIKA TOLARETXIPI BERRIAKO ZUZENDARIA

Zuzendaritza hartuko du, uztailetik aurrera, egunkariaren sorreraren hogeigarren urteurrenean. Jauzi digitala emango dute udazkenean, paperezko euskarria baztertu gabe

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Idazluma ondo baino hobeto zorrozuta dauka Amagoia Mujika Tolaretxipi kazetari andoainarrak. Unibertsitateko ikasketak amaituta, eta, Euskadi Irratian praktikaldia egin ostean, Aiurrin eman zituen lehen urratsak: erredaktore lanetan zebilen bera, 1994ko martxoan, Beterriko aldizkariaren zero zenbakia argitaratu zenean. *Euskaldunon Egunkaria*-n murgildu zen buru-belarri, 1995ean, baita, ondoren *Egunero*-n eta BERRIA-n ere. Bi hamarkada eman ditu azken horretan, askotariko zereginetan zein arduratan. Zuzendariorde izan da 2019az gerotik eta, orain, lekuko eman dio Martxelo Otamendik: Amagoia Mujika Tolaretxipik hartuko du, uztailetik aurrera, BERRIA egunkariko gidaritza.

Urtero legez, akziodunen batzarra izan zen BERRIA, joan den larun-

batean. Ordea, ez ohikotik dezente eduki zuen hitzorduak. Izan ere, Martxelo Otamendik zuzendaritza utzi eta zuri eman dizu lekukoa. Arduratik bezain zirraratik bizi al duzu erronka?

Behin akziodunen batzarra pasata, lasaitu egin nintzen apur bat, hor eman behar baikenuen albiste. Gerora, jaso ditudan mezuekin, pixka bat harrিতuta gelditu naiz, ez nuen eta horrenbesteko oihartzunik espero. Era berean, oso eskertuta nago, bai ingurukoekin, bai euskalgintzaren bueltako jendearekin, eman didaten babesagatik.

Nondik eta noiztik dator erabakia?

Urtebete igaro da zuzendaritza hartzeko proposamena luzatu zidatenetik. Hasieran, barregura sartu zitzaidan pixka bat, ez nuelako neure burua bertan ikusten. Era berean, Martxelo Otamendiren pareko figura bat alboan izanda, "zer egin behar dut nik?", pentsatzen nuen. Etxe-

ko norbait izatea nahi zuten, eta nire izena atera zen, ibilbide luzea egin baitut gurean. Argi dago Martxelo, Martxelo dela, eta ni beste pertsona bat naizela, eta neure erara egingo dudala bidea. Sekulako lan-taldea dauka BERRIAk. Bada, gainerakoa bere horretan emango da. Ikasteko prest nago.

Lan-talde osoaren babesa duzu atzean, baita Otamendirena ere: "Amagoia Mujika Tolaretxipik BERRIA eramango du inoiz egon ez den maila batera", zioen orain arteko zuzendariak igandeko BERRIA egunkarian.

"Ea, Martxelo!", erantzun nion hori entzun nuenean (barrez). Maila ona dauka, berez, BERRIAk, eta, lanean dihardugu, hobeak izateko, baina ez dago, soilik, nire esku. Lehen esan dudana bezala, lan-taldeak garrantzia dauka. Aldaketak datoz, udazkenara begira, baita erronkak ere. Hala, horiek gidatzen ikusten dut neure burua.

Andoaindarra zara sortzez, eta zure gurasoek harreman estua izan zuten Martin Ugalderekin. Poz txikia izango da alde horretatik etxekoentzat eta, bide batez, ugaldetarrentzat zuk zuzendaritza hartzea, ezta? Dudarik gabe. Nire aitaren lehen-gusua zen Martin, haurtzaroan, elkarrekin bizitakoak, gainera. Gogoan daukat, *Euskaldunon Egunkaria*-n hasi nintzenean, Martinek deitu zidala zoriontzeko. Pena aita ez dela gure artean, jada, ez eta Martin ere. Azken egunotan, haiekin asko oroitzen naiz. Erreferentzia handia da Martin Ugalde niretzat: kazetaritza maite zuen, badakigu zenbat sufritu zuen *Egunkaria*-ren garaietan, egindako lanagatik. Sekulako obra utzi digu. Euskara maite zuen berak, nahiz eta horregatik momentu zailak pasa behar izan.

Zuzendaritza postua zuretzat pauso berria izanagatik, sakonki ezagutzen dizkiozu tripak BERRIAri. Ia sail guztietatik igaro zara zu, baita editore taldetik ere.

Urte asko daramatzat hemen, baina egia da, bai, batetik bestera ibili naizela eta askotxo ezagutzen ditudala. Etxe honetan,

"SEKULAKO TALDEA DAUKA BERRIAK. BADA, GAINERAKOA BERE HORRETAN EMANGO DA"



Mujika, BERRIAko egoitza nagusiaren atarian. AIURRI

"Gizartea" sailean egin nuen lehen uda, niretzat berebiziko garrantzia daukaten bi kiderekin: Idurre Eskisabelekin eta Amagoia Gurrutxagarekin. Mundu berri bat zabaldu zitzaidan orduan, esperientzia bizia izan bainuen. Gerora, beste batzuetan ere aritu nintzen, hala nola, "Agenda" edo "Politika" sailetan. "Kultura"-n nenbilen lanean *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean, eta hortxe jarraitu nuen, ondoren, BERRIA argitaratzeari ekin genionean, "Mundua"-ra jauzi egin aurretik. Koordinatzaile eta editore lanetan aritu naiz. Pixkanaka, pausu horiek eman ditut, zuzendariorde izatera iritsi aurretik.

2019an hartu zenuen zuzendariorde kargua, gaurdaino. Gertutik jarraitu duzu Otamendiren jarduna. Zer ikasi diozu hari?

Gauza asko. Pertsona baliotsua da Martxelo. Oso inportantea izan da beti etxe barruan. Jakintza handia dauka, eta erraztasunez transmititzen du hori. Kazetaritza bizitzeko daukan modua partekatu du gurekin, egunez egun. Sekulako pisua izan du horrek niretzat, asko ikasi baitut haren ondoan. **Sorreraren 20. urteurrenean, norabide berriei begira ipini zarete, baina horrenbeste urtetan eutsi duzuen bizkarrezurra, muina mantenduta. Zertan ikusiko dira aldaketak?**

Etengabean gaude aldaketa-prozesu batean murgilduta, kazetaritzak horrela eskatzen duelako. Bada, horietan guztietan, lan-taldea izan da beti ardatz. Orain, jauzi inportantea egiteko asmotan gabilta, probak egiten ari gara. Lan-antolaketa aldatuko da, erabat. Goizago hasiko gara, beste lan-sistema batekin. Oso aldi konplexua bizi dugu, informazio-uholdea datorrelako, lasto asko daukagulako. Horren aurrean, beharrezkoa da ondo zehaztea guk joratu nahi duguna: gure begirada propioa, Euskal Herriatik eta Euskal Herriarentzat egingo den kazetaritza ona, kalitatezkoa eta fidagarria. Eguneroko bizi ditugun arazoei aurre egiteko kazetaritza, finean.

Hori horrela, salto handia emango dugu, digitalizaziorantz: bestek beste, lan-fluxuak eta ordutegiak aldatu egingo dira. Dena dela, ez dugu papera alde batera utzi nahi, oso garrantzitsua baita, bai guretzat, bai hemendik kanpo. Hala, orain daramagun bidean sakontzen ahaleginduko gara. Biak uztar-

"GUSTUKO DUT TALDEAN LAN EGITEA, IDEIAK JASO ETA EMATEA, PARTEKATZEA"

tuz, kazetaritza moderno bati erantzungo dion diseinu aldaketa integrala egingo dugu.

Herritarrengandik sortu zen BERRIA, eta orain ere herritarrek behar ditu. Garrantzizkoa da guretzat independente izaten jarraitzea eta, gaur egun, gure diru-sarreraren % 70 publikitate-tik, harpidetzetatik nahiz BERRIAlagunetatik jasotzen dugu. Sostengu handiagoo nahi dugu, BERRIA jendartean egotea beharrezkoa dela ikusten dugulako. Ez dugu, soilik, azala aldatuko, edukiei begira, saiakera berezia egin dugu. Kazetari guztiekin ari gara lanketa egiten, bileren bidez, eskaini nahi duguna zehazteko: azken orduko erantzuteaz gain, gure gai propioak lantzen jarraitu nahi dugu. Horrenbestez, diseinuan ez ezik, beste alderdi askotan ere nabarituriko du aldaketa.

Erabiltzaileen esperientzia askoz hobe izango da, arlo digitalean, lurraldeka antolatuko ditugu albisteak, atal bereziak egongo dira, feminismoari nahiz inguruneari tartea egingo diogu, baita euskarari ere, jakina... Horrelako aldaketa dezente datorzkitu.

Horrek ere ekarriko du buruhaus-terren bat edo beste...

Askotan, beldurra ematen digute aldaketek, baina inportanteak dira guretzat. Denon artean artean landu behar ditugu. Nola



Mujika, 1996 urtean. AIURRI

Aiurriko lehen erredakzio-taldeko kidea

Hogeita hamar urte atzera, Aiurriko lehen urratsak eman zituen, -1 zenbakia kaleratuz. 1994an hasita, maiztasunez argitaratzeari ekin zion aldizkariak. Bidegile haien artean dago Amagoia Mujika, Antxine Mendizabal eta Ainhoa Oiztabalekin batera.

egiten da hori? Taldearen ekarpenak jasoz, eta alderdi batzuk aldatuz, egoerak horrela eskatzen duenean. Mugimendua izango duen prozesua da, eta ilusioz hartzen ari da aldaketa jendea.

Aipatu bezala, irakurleen egunerokoa zeharkatzen duten gaiei erreparatzen jarraituko duzue, ez, ordea, paperezko euskarrian, soilik. Ikus-entzunezkoetan eta podcast formatuan ere sakonduko duzue.

"Entzun BERRIA" saila irekiko dugu. Podcast-ak egongo dira bertan, eta albisteak entzuteko aukera ere emango dugu. Bestalde, proiektu berriak ditugu buruan eta horiei forma ematen ari gara, pixkanaka.

Uztailaren lehenean sartuko zara zuzendaritzan. Amagoia Mujika Tolaretxipiren ukitu berezirik izango al du, aurrerantzean, BERRIAk? Baietz uste dut. Nork bere ekarpena egiten dio proiektuari, daukan horretatik. Gustuko dut taldean lan egitea, ideiak jaso eta ematea, partekatzea. Beraz, hori izango da, aurrerantzean ere bidea.



Dantzariak eta musikariak kalejirarekin eman zioten bukaera goiz parteko jaiari, bazkaltzera abiatu aurretik. AIURRI

Euskal Jaialdia

Andoaingo 33. Euskal Jaialdia modu ikusgarrian ospatu zuten Andoaingo kale eta plazetan, igandean, goizez nahiz arratsaldean, Urki taldeak antolatuta. Aiurri.eus gunean argazki eta bideo sorta ikusgai dago

Xabier Lasa ANDOAIN

Euskal Herri osoko dantza eta kultur taldeak hurbildu ziren Andoainera. Orio, Agurain, Dulantzi trikitilariak, Berrizko Iremiñe dantza taldea, Aguraingo Dulantzi Txiki taldea, Zumarragako abesbatza txikia, Leizako Aurrera dantza taldea, eta, Urki dantza taldea. Arratsaldean, Malkogarriyak taldearekin erromerian bildu ziren, Goikoplazan.

Plaza eta kaleetan bildu ziren ikusleek, Euskal Herriko makina bat dantza saioekin gozatze-ko aukera eduki zuten; besteak beste, Durangaldeko dantzak, Iribasko Ingurutxoak, Txankarrenkoa, Murchanteko Makil dantzak, Zazpi Jauzi, Txulalai...

Ahaztu gabe trikitilariak zabaldu zituzten soinu bizi eta dantzagarriak.

Esker ona ikastetxe, elkarte eta gurasoei

Hainbesteko dimentsioa daukan jaialdi batentzat, ezinbestekoa izan ohi da antolatzaileek jasotzen duten laguntza, herriko ikastetxe, elkarte nahiz gurasoen aldetik.

URKI DANTZA TALDEAK ESKERTZA ADIERAZI NAHI DIE LAGUNTZA EMAN DUTEN GUZTIEI

Hain zuzen, ehun eta berrogeita hamar bat dantzariak eta musikariak hartu zuten parte 33. Euskal Jaialdian, eta horiei guztiei hamaiketako emateko, Andoaindarra, Ontza, Irunberri, Peña Santa Krutz eta Kotoi elkarteak prestatu ziren. Bazkarirako, berriz, Urki dantza taldeko dantzarien gurasoek hartu zuten beren bizkar egin behar hori, batik bat, La Salle-Berrozpe eta Aita Larramendi ikastolako jangeletan, herriko hainbat elkarteetan edota etxe partikularretan.

Alde horretatik, Urki dantza taldeko kideek eskerrak eman nahi dizkie guzti-guztiei, beste behin ere eskaini duten laguntzagatik.



Urkiko dantzari txikiek Sardinerak izeneko saioa egin zuten Juanita Alkain plazan. AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

ANDOAINGO EUSKAL JAIALDIA

Jaialdia webgunean ikusgai
ARGAZKIAK, BIDEOAK

www.aiurri.eus



Goresteko modukoa da euskal dantzak sustatzeko Urki taldeko kideak urtez urte egiten ari diren ahalegina. Bejondeizuela! AIURRI



Zumarragako Abesbatza, urtetan Andoaingo La Salle-Berrozpeko irakasle izan zen Mikel Garciak zuzenduta. AIURRI



Berrizko Iremiñe dantza taldeak, Durangaldeko dantzen erakustaldia egin zuen. AIURRI



Urriko dantzariek Iribasko Ingurutxoari ekin zioten igandean. AIURRI



Leire Esnaolak zuzentzen duen Andoaingo Trikitilarien taldea. AIURRI



Goizez kaleetan barrena jardun ostean, Goikoplazan bildu ziren parte-hartzaile guztiak. AIURRI



Leitzako Aurrera dantza taldeko emakumeek Murchante Makil Dantzak egin zituzten Plaza Morea Andre Urdinarenan zein Zumea plazan. AIURRI

"Herriartekoan animoak ematera gonbidatu nahi ditut andoaindarrak"

XABAT AMILIBIA PELAEZ ANDOAIN PILOTA ESKOLAKO ARDURADUNA

PILOTA Gazteleku Pelota Eskolako arduraduna da. Irailean hartu zuen gidaritza eta, jada, lorpen ugariaren lekuko izan da; ostiraleko finalerdirako gogotsu agertu da



Xabat Amilibia Pelaez, Arrate beheko frontoi txikian. **AJURRI**

Mikel Arberas ANDOAIN

Gazteleku pilota eskolako gidaritzaren ardura hartu zenuen iragan irailan, baina zertan oinarritzen da zure lana?

Hasteko, Andoaingo pilotarien partidak zein txapelketak antolatzen ditut; hau da, izen-emateak eta beharrezkoa den komunikazio lanaz arduratzen naiz. Horrez gain, entrenamenduak antolatu eta kudeatzen ditut. Gainera, ezinbestekoa da beste klubekin eta federazioekin komunikazioa mantentzea, beraz, nire jardunean mugikorra esku artean eduki ohi dut.

Lotura handia eskatzen duen lana dirudi. Kosta al zitzaizun laneko dinamika horretan martxa hartzea? Uste nuena baino errazago hartu nion erritmoa lanari. Azken finean, umetatik eduki dut lotura estua pilota eskolarekin, eta frontoian ordu mordoa igarotakoa naiz. Gainera, Gaztelekuko jendea aurretiaz eza-

gututa moldaketa errazagoa izan da.

Pilota eskolako arduraduna zarenez gero, pozik egongo zara Berria eta Herriarteko Txapelketako emaitze-kin, ezta?

Egia esan, bai. Talde oso interesgarria eta maila altukoa osatu genuen Berria Txapelketan, eta Herriartekoko taldea ere ez da atzean geratzen. Aurtengoan, lan ona egin dugu guztion artean, baina, oraindik, badugu zer egin. Ostiralean, Herriarteko Txapelketako finalerdia jokatu behar dugu; beraz, andoaindarrak animoak ematera gonbidatu nahi ditugu. Guztiok batuta handiagoak gara eta gauza handiagoak lor ditzakegu.

Herriartekoak zirrara handia sortu izan du Andoainean; Arrate frontoia goraino beteta, lagunak eta senitartekoak animatzen. Hori gutxi balitz, urteak igaro dira, azken aldiz, finalerdira iritsi zirenetik ezta?

Zuk esan bezala urte asko igaro dira Andoainek horrelako partida bat jokatzeko aukera eduki zuenetik. Horiek horrela, taldeko pilotariak oso gogotsu daude, ezustekoa eman nahi dute txapelketan. Aurten, zortea eduki dugula esan genezake, izan ere, kadeteetan, jubeniletan eta seniorretan, guztiak aritzen dira pilotan, baita ordezkioak ere; zaila da, urtero-urtero, pilotan jokatzeko dutenekin taldea osatzea. Hots, iragan urteetan, pilotari ohiez osatutako bikote batzuk eduki genituen.

Pilota eskolako gidaritza lanetan jarraitzeko asmoa al duzu datorren urteari begira?

Oraingo, bai. Gustura nago eta lan ona egiten ari naizela uste dut.

Eta galderarekin zerikusirik ez duen arren, andoaindarrei Arratera hurbiltzeko gonbitea zabaldu nahiko nieke, ea guztion artean garaipena lortzen dugun!



Herriarteko Txapelketako pilotari taldea. **GAZTELEKU**

Herriarteko Txapelketako finalaurrekoan da Andoain

PILOTA Finalaurrekoan Azpeitiaren aurka jokatu beharko du Andoainek, Gipuzkoako talderik onenetakoa

Mikel Arberas ANDOAIN

Andoaingo pilotariak hiru partidak irabazi zituzten zestoarren aurka. Oraingoan, andoaindarrek hiru partidak irabazi zituzten hirutik, eta, beraz, zailtasun handirik gabe igaro ziren hurrengo fasera.

Aimar Berozek eta Mikel Gaztañagak joaneko partidako arantzak kendu eta garaipen garbia eskuratu zuten (22-12). Berozek maila ona erakutsi eta sendotatu zuten jokatu zuten, pilotakada indartsuak emanda. Pilotari izaera garbia duela ikus zitekeen, nortasunarekin jokatu eta atzeko koadroetatik indartsu erantzunda. Gaztañagak, aurretik, joko biziarekin tanto ugari egin zituen. Atzelariak lagunduta, Gaztañagak aurrean nahi bezala jokatzeko aukera eduki zuen. Umetatik bikote gisa jokatu izan dute biek, beraz, elkarren arteko sinbiosia begi hutsez ikus daiteke.

Jubeniletan ere garaipen argia eskuratu zuten Julen Gaztañagak eta Beñat Salbadorrek (22-9). Biek partida ona jokatu zuten, egin beharrezkoak beteta; atzean asko jokatu zuten, atzelaria erasotuz, ondoren, aurrealdeko koadroetan amaitzeko. Salbado-

rrek pilotakada indartsuak eman ohi ditu eta eskuetatik abiadura oso handian irtetzen zaio pilota. Julen Gaztañagak atzelariaren indarra balitatuta, anaia bezalaxe, lehen koadroetan trikimailuak egitearen zalea da.

Azken partidatan, seniorretan, Usandizagak atzelari jokatu zuen eta Urruzolak aurrean; azken honek, erakustaldia eman zuen lehen koadroetan, biparetekin, dejadekin eta ezker gantxoekin. Usandizagak hoi bezala, aurrelariaren lana erraztu eta sendo aritu zen.

Finalerdi zaila edukiko dute andoaindarrek

Sasoi onean dira Andoaingo pilotariak, baina lan handia egin beharko dute Azpeitiari irabazteko eta aurre egiteko. Izan ere, azpeitiarrak zortzi aldiz izan dira Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako irabazle, eta, urtero-urtero, emaitza bikainak lortu ohi izan dituzte. Esanak esan, Andoainek ezustekoa eman nahi du, txapelketa osoan, maila erakutsi eta aurkari oro garaitzea lortu baitu. Pilotariak gogotsu daude, urte askoren ostean, Andoain pilotako goi postuetan kokatuta baitago.

OSTIRALEAN, ARRATSALDEKO 19:30EAN IZANGO DA TXAPELKETAKO FINALERDIA

URTE ASKOREN OSTEAN, ANDOAIN HERRIARTEKO TXAPELKETAKO FINALERDIAN DA



AIURRI

Iturzaeta Txapelketako finalak, asteburuan

PALA Finalak eta afari apustua iristear dira. Urteko kirol ekitaldi ikusgarriena izan ohi da, izan ere, eguraldi onarekin goraino betetzen da Sorabillako frontoia. Partidak 17:30ean hasiko dira, afari-apustuarekin.

Ondoren, gizonezkoen 3. eta 4. postuak zehazteko partida izango da. Ondoren, emakumezkoen eta gizonezkoen finalak jokatu dira, hurrenez hurren: 18:30ean eta 19:00tan. Sari-banaketa egingo da, amaieran.



Gipuzkoako judo-txapelketa

JUDO Maiatzean Gipuzkoako judo-txapelketa jokatu zen, Errenterian. Andoingo taldetik hainbat kirolari saritu zituzten.

Alebin Handiak:

46 Kg Ander Martinez Rodriguez. Urrea.

46 Kg Oier Gutierrez Pires. Brontzea.

Alebin Txikiak:

47 Kg Markel Barrasa Bote. Zilarra.

Gipuzkoako Kopa:

34 Kg Danel Frutos Macias. Brontzea.

38 Kg Lukas Baco Antunes. Zilarra.

Neskak:

40 Kg Hiba Eissa Bakkour. Urrea.

52 Kg Chaima Nekkache Hachemaoui. Brontzea.



Arruti eta Arbelaitz, iazko txapelak. HAMAIKA

Hiru urnietar, Binakako Pentatloi Txapelaren bila

HERRI KIROLAK Igandean, arratsaldeko 17:00tan hasita, Tolosako zezen-plazan

Andoni Urbistondo URNIETA Nerea Arruti Amalur Arbelaitzekin ariko da, eta mutiletan, Beñat Telleria eta Julen Gabirondo, eskuz-esku; Tolosako zezen-plazan izanen da finala, igandean arratseko bostetan.

Euskal Herriko Binakako Pentatloi Txapelketa jokatu da ekainak 11 dituela, eta hara batuko dira 18 kirolari. Horietatik hiru urnietarrak izanen dira, eta arlo horretan, behintzat, txapelak zalantzarik gabe. Bikote bat emakumezkoetan ariko da, Nerea Arruti Lekun baserriko alabak, eta Binakako txapelak Amalur Arbelaitz izango baitu alboan lanak osatzeko. Mutiletan, aldiz, Julen Gabirondo segalaria, Mozotegi baserriko semea, eta Beñat Telleria, Lasarte Zelai-Eder etxeko semea, baina arimaz urnietarra.

Bostetan da hitzordua, eta osatu beharreko lana, nekagarria benetan. Harriei dagokionez, mutilek 40 jasoaldi egin behar dituzte, eta neskek 20. Giza proba izanen da bigarren proba: lau plaza mutilentzat, erdiak neskentzat. Lan teknikoena on-

doren, aizkora: mutilek lau kanardiko, eta neskek 45 ontzako bi egur. Txingen lanera iristen direnerako beso, hanka eta haupoa zigortu samar izanen dute kirolariek, baina mutilek 8 plaza egin beharko dituzte, eta neskek sei. Eta azken proba, herio batean, korrika saioa zezen plazari bueltak emanda: lau kilometro mutilek, eta bi neskek.

Txapela janzteko gertu ibiliko ote dira urnietarrak? Garbi dago Nerea Arrutik eta bere bikoteak aukera handiagoa dutela, urnietarrak bere gatza, indarra, sarri erakutsi duelako dagoeneko. Telleriak eta Gabirondok aurkari zitalak izanen dituzte, batez ere Andoni Iruretagoiena eta Xabat Olaizola bikotea. Arratsalde pasa ederra Tolosan, bertaratzeko asmoa duenarentzat!

NEREA ARRUTI, BEÑAT TELLERIA ETA JULEN GABIRONDO URNIETARRAK LEHIAN IZANGO DIRA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 8

ANDOAIN Argazki-erakusketa
Erakusketa kolektiboa.
Ekainak 1-30, Bastero.

ANDOAIN Erosketa-bonuak
Salkinem bonuak agortu dira.
Ekimena: Ekaina.

OSTIRALA 9

ANDOAIN Dokumentala
"Bi arnas", egileek aurkeztuta.
Tortura hizpide duen ikus-entzunezkoa. Antolatzailea: Ernai.
19:00, Andoingo Gaztetxea.

LARUNBATA 10

URNIETA Igerilekua
Ordutegia: 10:00-20:30. Taberna zerbitzua eskainiko da.
Ekainaren 10ean hasita.

ANDOAIN Rock jaialdia
Herria rock doinuez beteko da.
Aperitif jaialdia:
12:00 Arima. Zumea plaza.
13:00 Siglas. Plaza Morea.
14:00 Krin. Goikoplaza.
Nafarroa plaza:
18:00 Nize.
19:05 The Courettes.
20:30 Chocolat Billy.
22:00 The Giant Robots.
23:15 Black Lips.
01:00 The Schizophonics.
Jaialdi nagusia: Nafarroa plaza.

ANDOAIN Ospakizuna
Aita Larramendi ikastolaren ikasturte amaierako ospakizuna.
Egun osoan zehar.

ANDOAIN Ospakizuna
La Salle Berrozpe ikastetxearen ikasturte amaierako ospakizuna.
Egun osoan zehar.

IGANDEA 11

URNIETA Dantza
"Doinu berriak dantzan", Egape dantza taldearen eskutik.
18:30, Helduen emanaldia.
19:30, Gazteen emanaldia.
Sarobe.



URNIETA Liburuaren festa

11:00etan irekiko du Garbiñe Larrea naturopatak egitaraua "Sendabelarrek dakitena" eta "Sendabelar baratzea" liburuaren aurkezpenarekin. Ondoren, abesti topaketa izango da eguerdiko 13:00ean, Kantazaunen eskutik. Ekitaldi gehiago izango dira egun osoan.
Ekainak 11, igandea. Etxeberri Plaza, Urnieta.

ASTELEHENA, 12

URNIETA Antzerkia
Egape Ikastolak antolatutako Kultur Astea. Egapeko LH2koen emanaldia, Berasategiren zuzendaritzapean.
16:30, Sarobe.

ASTEAZKENA, 14

URNIETA Musika
Egapeko ikasleen gitarra kontzertua.
17:30, Sarobe.


OSTEGUNA, 15

URNIETA Antzerkia
Egapeko LH4koen emanaldia, Berasategiren zuzendaritzapean.
16:30, Sarobe.

OSTIRALA 16

ANDOAIN Antzerkia
"Sexberdinak". Aktoreak: Telmo Irureta eta Aitziber Garmendia. Bi lagunaren istorioa, umorez eta minez tindatuta.
20:00, Bastero.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO


Las ocho montañas
Lar, 10. 19:30, 22:00.
Ig., 11. 19:30.
Astl, 12. 19:30, 22:00.

La sirenita
Lar, 10. 17:00.
Ig., 11. 17:00.

Upon entry
Lar, 17. 19:30, 22:00.
Ig., 18. 19:30.
Astl, 19. 19:30, 22:00.



SINOPSISIA



Las ocho montañas (Le otto montagne)

Zuzendaria: Felix Van Groeningen. **Aktoreak:** Luca Marinelli, Alessandro Borghi, Filippo Timi, Elena Lietti, Surakshya Panta, Elisabetta Mazzullo **Herraldea:** Italia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 147 min.

Laguntasuna, muinean

Pietro hiriko mutil bat da, eta Bruno ahaztutako mendiko herri bateko azken umea. Urteen poderioz, Brunok bere mendiari leial eusten dio, eta Pietro etorri

eta joan egiten da. Beren esperientziek maitasunari eta galerari aurre egingo diete, beren jatorria gogoraraziz eta patuari bidea irekiz.



andoainDARRA
euskaraz



Urnieta
udala



Krin taldea Goikoplazan ariko da, 14:00tan hasita. AIURRI

Krin, garage rock soinu bortitzak Goikoplazan

Etorkizun oparoko hiru euskal taldek osatuko dute Aperitif saioa, larunbat eguerdian, Rock Jaialdiaren barnean

Xabier Lasa ANDOAIN

Arima, Siglas eta Krin. Azken urteetan sortutako taldeak dira, eta musikazaleentzat ezusteko atsegin eta gozagarriak eskaintzeko prest helduko dira Andoainera. Krin taldeko hiru musikari (Fran Romero, Ion Vara eta Mikel Etxegarai) Rock Jaialdiaren aurkezpenean izan ziren. Aperitif saioan, oholtzara igoko den hirugarren taldea izango, Goikoplazan 14:00etan, hain zuzen. Laukotea da Krin Irungo taldea: Fran Romero (bateria), Ion Vara (baxu jolea), Mikel Etxegarai (ahotsa, armonika), eta Beñat Gonzalez (gitarra).

Pandemia betean sortu zuten taldea: "Elkarren ezagunak ginen, baina bi kuadrilletakoak gara. Nolabait, Juan Carlos Garcia diskografia-sustatzailearen Bloody Mary disko-dendako bezero finakoak gara, disko biniloaren eta garage kutsuko rockaren zale amorratuak garenez, hortxe egin genuen topo. Beñaten lokalean entseguei ekin genien, eta nahiz eta gustu anitzak eduki, lortu genuen batzen gaituzten musika ildoetatik abiatzea; alegia, 60ko musika, garagea..."

Goikoplazako kontzertuan nolako zuzeneko eskainiko duten galdetuta, hitz bakan batzuk aipatzen dituzte, nahikoak izango direlakoan: "60ko garage-rock soinu bortitzak, indartsuak, zorrotzak, ilunak... entzungo ditu entzuleak kontzertuan. Show puntu bat badauka gure ema-

naldiak, baina apaingarririk gabekoa da, hots, ez daukagu hitz-aspertuetarako denborarik abestitik abestira".

Ohorea eta erantzukizuna

Andoingo Rock Jaialdiko hitzordua agendan hizki larriz daukaten rockzale horietakoak dira lauak ere. "Egundokoa da. Rock mundua gertutik jarraitzen dugunontzat erreferentziatzat dauzkagun taldeak igaro izan dira Nafarroa plazako oholtzatik. Izugarriko bandak: The Nomads, Flamin Groovies, The Muffs, Limiñanas..." Horrexegatik pozez txoratzen daude aurtengo Andoingo Rock Jaialdian sartu dituztelako: "Amets batean gaude, eta ohore bikoitza sentitzen dugu: halako Jaialdian parte hartzeagatik, eta Black Lips bezalako talde bat azaltzen den kartelean gu ere hor egozteagatik".

Erantzukizun handia sentitzen dute Andoingo hitzorduari begira, baina, aldi berean, daukaten guztia emateko asmoz agertuko direla Goikoplazara aginduko zuten martxoaren 17an egindako Jaialdiaren aurkezpenean. Rock zaleei gonbidapen berezia egin zieten, bertara azal zitezen: "Arratsaldeko 14:00-15:00ak sekulako tartea izan daiteke rocka entzuteko, bermuta eskuan edukita. Are gehiago, jakinda aurrez beste bi taldek jo dutela, eta handik hiru ordutara jarraipena izango duela rockaren festak Nafarroa plazan, egundoko taldeekin!".



HERRERO

Erakusketa, Goiburu golfean

Visi Herreroren margolanak ikusgai daude Goiburu golf klubean, datorren ekainaren 30era bitarte. Kirol jarduerak nagusi dira, eta ostalaritzak ere garrantzia du Goiburu golf klubean. Arteari ere tartea eskaintzen diote.

Infantilei deialdia

Ganbara saski taldea 2023-2024 denboraldia prestatzen hasi da, eta, egun hauetan, 2010-2011 urteetan jaiotakoei deialdi berezia luzatu die. Neskei eta mutilei zuzendutako hitzordua da. Ostiral honetan, arratsaldeko 17:50tan hasita, interesa duenari Ubitarte futbol zelaian agertzeko deia luzatu dute klubetik. Denboraldi honetan, lan polita egin dute eta bide beretik jarraitu nahiko lukete, Andoainen.



GANBARA

Juankar Alberdi gogoan hartuko dute Urnietan

Orain 35 urte espeskean hil zen herrikidea. Hala, ekainaren 15ean, lore-eskaintza egingo dute San Juan plazan, 19:30ean. Bestalde, hilaren 17an, mendi-irteera antolatu dute: Adarra, Onddi, Buruntza eta Santa Barbara tontorrek zeharkatuko dituzte, omenaldi gisa. Ondoren, bazkaria, 14:00tan. Ekainaren 11 baino lehen eman behar da izena (695 737 423).

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Osasun zentroa: 943 006 670.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Ekainak 12, astelehena.
16:30-20:30. ANDOAIN, Anbulatorioa
Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

ESKELAK
JARTZEKO:
943 300 732
edo
publicitatea@aiurri.eus

**Eskelak
Aiurriin:
90 euro**



Drogas izan zen iazko Rock jaialdiko izarra. AIURRI

Rock doinuak, Nafarroa plazan

Hamabosgarren ediziora iritsi da Andoaingo Rock Jaialdia. Nafarroa plazan nazioarteko musika proposamen interesgarriak entzun ahal izango dira, doako kontzertuetan. Andoaingo eta kanpoko musikazale askoren arreta bereganatuko dute, berriro

Erredakzioa ANDOAIN

18:00 | Nize. Bilboko taldeak emango dio hasiera jaialdiari. Hirukoteak 2020an *Ezin* lanarekin egin zuen debuta euskal eszenategian, noise-rock, hardcore eta punk doinuekin.

19:05 | The Courettes. Bikote dani-markar-brasildarra da, aise mugitzen dena garage estiloaren, 60ko Girl

Groupen soinuaren eta doo woop-aren artean. Soul-rock and roll zoragarria egiten du, eta aldikari espezializatuak haien 2021ko lana urteko onenen artean hautatu zuen.

20:30 | Chocolat Billy. Talde frantsesa soinu basati eta indartsua eskaintzen du zuzenean, partaide guztiek

elkarren artean instrumentuak trukatzeko bitartean.

22:00 | The Giant Robots. Talde suitzarrak, underground rock eszenan gero eta izen handiagoa du. Garciak adierazi zuenez, "60ko hamarkadako *garagea* egiten dute, baina eguneratua. Egia da *garajeak* ez duela arorik distira-

tsuena bizi, baina baita ere, azpimarratzekoa da talde suitzarrak, onentxoenetakoa baita egun".

23:15 | Black Lips. Talde estatubatuarra izango da Jaialdiko izarra, esan bezala. 13 urte zituztela osatu zuten taldea 1999an, eta, geroztik, mundu guztian zabaldu dute beren musika indartsua, *garaje* estilotik hasi eta egungo rock sofistikuagorako bidea eginez. *Apocalypse Love* disko berria kalera tu zuten iaz, eta, tartean, da *Bad kids* kanta ezaguna, Spotify plataforman jada 23 milioi entzunalditik gora dituen abestia.

01:00 | The Schizophonic. Kaliforniakoa (AEB) da bigarren talde hori ere, "James Brown edo MC5 taldea gogora ekartzen ditu. Ameriketako musika zale askok diote, zuzeneko bandarik onena eta basatiarena dela han bertan.


Abeslaria ero moduan ibiltzen da oholtza gainean. Jaialdiko izarretakoa izango da", Juancar Garcíaren ustetan.

Aperitif saioak eguerdian, udalerriko hainbat plazatan

12:00 Zumea plaza | Arima. "Beldurrez beste egitean" izenburuko diskoa kale-ratu berri du Rock talde bizkaitarrak.

13:00 Plaza Morea | Siglas. Donostiako banda, *garaje* kutsuko *pop-yeye*-a eta freskoa eginez melodia itsaskorrek zabaltzen ditu zuzeneko bikainarekin.

14:00, Goikoplaza | Krin. Pandemiaren ostean, Irungo lau musikariek sortua, 60ko *garaje-rock* soinu bortitz eta ilunak ditu ipar. Halako estiloko formazioetan ohikoa ez den instrumentua, armonika, erabiltzen du, eta zuzeneko zorrotz eta apaingarririk gabekoa eskaintzen du.



Ekainak 17, larunbata

UDAL KORPORAZIO BERRIEN OSAKETA

Jarraipena AIURRI.EUS gunean: kronikak, argazkiak, bideoak